

## AP-1eko Lesarriko tunela zabalik Gasteizerako noranzkoan osorik berrituta

*Maria Ubarretxena: "Eguneratze honi esker, tunelak aise gaudituko ditu European eskatzen diren segurtasun, eraginkortasun eta hornidura teknologikoko estandar gorenak"*



Apirilaren 27tik, larunbata, AP-1eko Lesarriko tunela berriro zabalik dago Gasteizerako noranzkoan, joan den irailean hasi ziren birgaitze integraleko lanak amaitu ondoren. Azpiegiturara eginiko bisitan, Maria Ubarretxena, Bide Azpiegiturretako diputatuak azpimarratu zuen tunelaren hodietako bat amaitzeak ekarri duen aurrerapen berria, "eguneratze horri esker aise gaudituko baititu European eskatzen diren segurtasun eta hornidura teknologikoko estandar gorenak". Era berean, tunelaren Garraio Sistema Adimendunen (STI) eguneratze teknologikorako "ahalegin berezia" nabarmendu zuen, "inbertsioaren % 60 segurtasuneko, eraginkortasun energetikoko eta intzidentzien kontroleko soluzio teknologiko aurreratuei baitagokie". Hodia kontrako noranzkoan birgaitzeko lanei dagokienez, irailaren bigarren hamabostaldian hasiko dira, eta aurreikusten da azpiegitura osoa 2025eko maiatzean amaituta eta erabat martxan egotea. Inbertsioa, guztira, 19.688.000 €+ BEZa da.

### Sistemen eguneratzea

Lesarriko tunela birgaitzeko proiektuaren arabera, barruko instalazioak osorik berrituko dira, eta tunelaren bi hodie eutsi eta estaltzeko lanak indartuko dira. Hodi horiek 1.200 metroko luzera dute noranzko bakoitzean. Bi tunelak lotzen dituzten bost ebakuazio-galeriak ere berrituko dituzte. Galeria horietako lau, pertsonak ebakutzeko dira, eta bat larrialdietarako ibilgailuetarako, eta galeria guztiek ureztatzeko ahoak dituzte suhiltzaileentzat. Berrikuntza teknikoaren zatian, luzetarako eta galerietako 20



haizagailuak berrituko dira, baita horien suebaki-uhateak ere. Argiztapenerako, egungo argien ordeztuak LED teknologiko argiak jarriko dira.

Ubarretxanak, kontrol, segurtasun eta eraginkortasun energetikoko sistemekin lotutako birgaitzearen alderdi teknikoak azpimarratuz, azaldu zuen gaur egun Europa barneko errepideen sareko tuneletarako gutxieneko segurtasun-baldintzei buruz indarrean dagoen Europako Zuzentarauak hainbat neurri eskatzen dituela, "besteak beste, tunelaren geometriarekin, diseinuarekin, segurtasun-ekipamenduarekin, bide-seinaleekin, trafikoaren kudeaketarekin, gertakarien kudeaketarekin, erabiltzaileei zuzendutako informazioarekin eta abarrekin lotutakoak. Segurtasuna, funtsean, soluzio teknologikoetan oinarritzen da, eta 20 urte denbora asko da zentzu horretan. Lesarriko tunela 1998an proiektatu zen, eta, gaur egun, azpiegitura hori hornitu nahi izan dugun sistema teknologiko hobeak ditugu, gure erabateko lehentasuna baita zerbitzu segurua eta kalitatezkoa eskaintzea", gaineratu zuen.

Zarautz, 2024-04-27.

## El túnel de Lesarri de la AP-1 en sentido Gasteiz abierto tras una renovación integral

*Maria Ubarretxena: “Gracias a esta puesta al día, el túnel superará holgadamente los más altos estándares de seguridad, eficiencia y dotación tecnológica exigidos a nivel europeo”*



El sábado 27 de abril, se reabrió el túnel de Lesarri de la AP-1 en sentido Gasteiz tras finalizar los trabajos de rehabilitación integral que comenzaron el pasado septiembre. En la visita realizada al túnel, la diputada de Infraestructuras Viarias, Maria Ubarretxena, subrayó el nuevo avance que supone terminar uno de los tubos de esta infraestructura, que “gracias a esta puesta al día superará holgadamente los más altos estándares de seguridad y dotación tecnológica exigidos a nivel europeo”. Asimismo, puso en valor el especial esfuerzo de actualización tecnológica en los Sistemas de Inteligentes de Transporte (ITS) de este túnel, “dado que el 60 % de la inversión responde a soluciones tecnológicas avanzadas de seguridad, eficiencia energética y control de incidencias”, detalló. En cuanto a los trabajos de rehabilitación del tubo en sentido contrario, estos arrancarán en la segunda quincena de septiembre y la previsión es que la infraestructura al completo esté finalizada y plenamente operativa en mayo de 2025. La inversión total es de 19.688.000 €+ IVA.

### **Actualización de los sistemas**

El proyecto de rehabilitación del túnel de Lesarri contempla una renovación integral de las instalaciones interiores y del refuerzo del sostenimiento y revestimiento de los dos



tubos del túnel que constan de una longitud de 1.200 m en cada sentido. También se renuevan las cinco galerías de evacuación que conectan ambos túneles. Cuatro de estas galerías están destinadas a la evacuación de personas y una para vehículos de emergencia y todas las galerías cuentan con bocas de riego para los bomberos. En la parte de la renovación técnica, se renovarán los 20 ventiladores longitudinales y de las galerías, así como las compuertas cortafuegos de éstas. Para la iluminación se sustituirán las actuales luces por luminarias de tecnología LED.

Ubarretxena, incidiendo en los aspectos técnicos de la rehabilitación relacionados con los sistemas de control, seguridad y eficiencia energética, ha explicado que “actualmente la Directiva Europea vigente sobre requisitos mínimos de seguridad para túneles de la Red Transeuropea de carreteras requiere una serie de medidas relacionadas, entre otros aspectos, con la geometría del túnel, su diseño, el equipamiento de seguridad; incluida la señalización vial, la gestión de tráfico, la gestión de incidentes, la información dirigida a los usuarios, etc”. “La seguridad descansa fundamentalmente en soluciones tecnológicas para los cuales 20 años es una eternidad. El túnel de Lesarri fue proyectado en 1998 y actualmente contamos con sistemas tecnológicos superiores con los que hemos querido equipar esta infraestructura, porque es nuestra absoluta prioridad brindar un servicio seguro y de calidad”, añadió.

Zarautz, 2024-04-27